



Irurarrek osasun zentro berria dute erabilgarri gaurtik aurrera

INAUGURAZIOA ▶ Atzo egin zuten Marimi Ugalde alkateak eta Osakidetzako Iñaki Arratibelek

EKIPAMENDUA ▶ Itxaron gela, mediku eta erizain gelak, erabilera anitzeko gela eta komunak ditu ▶ 4



Herriko bi dantzarik aureskua dantzatu zuten, Marimi Ugaldere eta Iñaki Arratibelen aurrean. I. GARCIA



N. GARCIA

NEREA GONZALEZ ▶ LORE SALTZAILEA

«Larrosa metafora bat da, asko gustatzen zait»

Urte sasoi honetako loreei buruz aritu da solasean leitzarra ▶ 7

AMEZKETA ▶

Albitzuri-Aundia harria «kartzelara», behin behinekoz

Udaletxeko ezker aldeko gelan izango da ikusgai, erakusleihoan ▶ 5

VILLABONA ▶ KIROLA

ARKAITZ APALATEGI

Gipuzkoako Karting pilotu gazterik onenak aukeratu dituzte iragan asteburuan, Olaberriako zirkuitoan. Foru Aldundiaren Kopako sari nagusia Villabonara joan da, Jesusen Bihotza ikastetxeko Urtzi Zubeldia izan baitzen pilotu guztien artean azkarrena. Finalean parte hartu zuten hamabi gazteen artean bi izan ziren eskualdekoak. Duela bi aste egindako entrenamenduetan lortutako postuen arabera, hamabi txandatan banatuta atera ziren pilotu guztiak. Txanda bakoitzeko irabazleekin, finala jokatu zuten ondoren. Hamabi hauen artean, «maila altua» izan zela eta «lehia gogorra» izan zutela adierazi zuten Olaberri zirkuitoko arduradunek.

Antolatzaileen hitzetan, «gaztetxo guztiak gogor saiatu ziren entrenamenduetan lortutako denborak hobetzeko». Lehiarik estuena ordea, lehen bi postuen artean izan zen. «Lasterketa guztietan tentsioa nabarmena izan zen, baina azken lasterketan txispak atera zituzten pilotuek». Azken lasterketako faborito nagusiak Urtzi Zubeldia eta Ruben Fanarraga ziren, bi hauek lortu baitzituzten ordura arteko denborarik onenak.

Finalean ere, aurrez aurrekoa beroa izan zen. Lasterketaren hasieratik gainontzeko pilotuei aurrea hartu zieten, eta paretsu ibili ziren lehen itzulietan. Lasterketaren erdialdean

Urtzi Zubeldiak irabazi du Karting Kopako sari nagusia

Hirugarren postua Aitor San Sebastian billabonatarrentzat izan zen, Olaberriako zirkuitoan jokaturiko Gipuzkoako pilotu gazteen lasterketan



Lehia gogorra izan zen lasterkari gazteen artean. A. APALATEGI

FINAL IKUSGARRIA

Finalean «maila handia» eta «lehia gogorra» izan zela piltuen artean azaldu dute antolatzaileek

ordea, Fanarragak gurpil bat zulatu eta atzera gelditu zen. Handik aurrera, Urtzi Zubeldia erraz nagusitu zen, eta bera heldu zen helmugara aurreneko postuan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Karting Kopa irabaziz.

Podiumean, Joseba Aranberri azpeitiarra izan zen bigarren, eta Villabonako Aitor San Sebastian hirugarren. Emakumezkoetan, Uxue Barrena oñatiarrentzat izan zen aurreneko saria. Antolatzaileak «gustura» gelditu ziren lehiaketaren emaitzarekin. Olaberriako Zirkuitoko zuzendaria den Irupe Zubiaurreren hitzetan, «oso pozik gaude dena Karting Kopa orohar nola atera den ikusita».

TOLOSA ▶ AGENDA 21



Hondakinen inguruko hausnarketa

I. Terradillos ▶ Ikasturtean zehar Tolosako 3.235 ikasleek hondakinen inguruan egindako lanaren berri eman zioten atzo Udaltzari. Azken txostenaren berri emateaz gain, gaiarekiko hartzen dituzten konpromisoak eta proposamenak adierazi zituzten gazteek. Zinegotziek eskerrak eman ondoren eta lan handia dagoela egiteko onartzearekin batera, bakoitzak bere etxetik hasi behar duela ere esan zuten. I.T.

TOLOSA ▶ HAUTESKUNDEAK



Atzerritarrak eta bozka eskubidea

I. Terradillos ▶ EB, EA eta EAJren aldeko bozkekin eta PSE-EE eta PPren abstentzioekin onartu zuen atzo Udaltzarak SOS Arrazakeriaren mozioa. Udalak herriari bizi diren atzerritar naziotasuneko bozka eskubidea eta diskriminazio guztien aurka dagoela aldarrikatzea; eskubide hori gauzatzeko behar diren lege aldaketak sustatzea eta onartutako akordioa erakundeei helaraztea dira mozioaren puntuak. I.T.

ALEGIA ▶

Kirola gaitzat hartuz hitzaldi eta proiektzio interesgarriak

Maiatzean zehar izango dira, eta Garagardo Azokak emango die haisera

N. URBIZU

Alegian maiatzean kirolarekin loturiko hainbat ekitaldi antolatu dituzte. Hasiara In-txurre Kirol elkarteak antolatuturiko Garagardo Festak emango dio, etzi bertan. As-teartean *Trekking Sahararen bihotzean* (Mila Gallastegi eta Asier Aranzabal) proiektzioa egingo dute 19:30ean, Kultur Etxeko batzar aretoan.

Hilaren 17an beste proiektzio bat izango da: *Euskal mendizaletasunaren aitzindariak* (Antxon Iturriza). 19:30ean izango da Kultur Etxeko batzar aretoan. Antolatzailerak kasu honetan Udala izango da.

Musikarentzako tartea

Hilaren 20an, mendi martxa antolatu du Alegiko Mendi Asanbladak. Araotz, Degurixa, Apotza mendatea eta Aretxabaleta bisitatuko dituzte.

Ekainaren 1ean Ahots Bidadziak emanaldia Goikoe-txea anai-arrebekin eta Iñaki Mezquita alegiarrarekin izango da.

ALEGIA ▶

Intxurrekoak lehenengo postuetan dira taulan

N. URBIZU

Intxurreko futbol eta areto futbol taldeak lehen postuetan daude. Lurreldekakoak bigarren, jubenilak hirugarren, kadeteak laugarren eta senior mailako neskek hirugarren.

Azken asteburuan denek irabazi zuten kadeteek izan ezik. Datorrenean derbi bat izango da nesken mailan. Orixeren aurka jokatuko baitute Alegian. Lurreldekakoak Antzuolaren aurka jokatu beharko dute. Talde hau taulako lehena da.

AMEZKETA ▶ GIZARTEA

Albitzuri-Aundi harria behin behineko kartzelan izango da

Udaletxeko ezker aldeko gelan izango da erakuslehoan, igogailura eta komunetara joateko bide publiko eta berrian

NEREA URBIZU

Albitzuri-Aundi harria euskaldun indartsuenen bizkarren gainean egondakoa da. 1875. urtean altxa omen zuen lehen aldiz Joxe Mari Zuriarrain amezketarrak 166 kiloko harria, Albitzuri Aundi baserrikoak. Hortik dator kio harriari izena. Udaletxearen ezker aldean zegoen kartzelan egongo da orain, preso, eta aldi berean ikusi nahi duten guztien bistan. «Mementuz, 08:00etatik 15:00etara egongo da atea irekita; publikoa da». Harri bitxiaren atzean kartzelako leihoko barrak kontserbatu dituzte. Beraz, pilotalekutik ere ikus daiteke harria.

Lehenago Udalak berak kartzela izandako gelan traste zaharrak, makinak eta abar go-

detzen zituen, eta pilotalekuko aldagelak ere hor zeuden. Orain, gela guztia berritu dute, eta honako funtzioak izango ditu: sarrera handia udaletxera joateko, baina igogailuz igotzeko; komuna publikoetara joateko sarbidea, pilotalekuko aldagelara joateko sarbidea, eta ezkerretara dagoen Albitzuri-Aundi harria erakusleho batean ikusteko lekua.

Horrez gain, etorkizunean egin nahi duten Kultur Etxera joateko bidea ere izango litzateke, baina «igogailuaren bidez egin beharko litzateke, Kultur Etxea ez baita egongo udaletxearen maila berean. Oinez joatekotan, aldapa igo egin behar da udaletxearen eskuin aldetik, eta igogailua izatearekin,

zuzenean udaletxea eta Kultur Etxea komunikatuko lirateke, aldapa igo beharrik gabe», argitu zuen Sagastume alkateak.

Igogailuak bi funtzio nagusi izango ditu: adierazi zuen alkateak: «Alde batetik Udalarri egingo dion mesedea, ganbarara joateko eta bulegoetara joateko, eta inportantea dena: ez da udaletxeko erdiko zuloatik joango eta betiko itxura gordeko du». Bestetik, aurrerantzean egiteko dugun Kultur Etxera joateko modua izango litzateke».

Harria 2015ean

Amezketan duela hiru bat hila-bete Albitzuri Aundi harriaren proba bat egin zuten, 8 bat urte erabili gabe egon ondoren. «Zokoratuta egon zen, udaletxeko gela batean, eta ez zuen leku berezirik», gogoratu zuen Julian Sagastume Amezketa alkateak. Horren ondorioz, eta Amezketan kulturari dagokionez garrantzitsuenak Fernando Amezketa eta Albitzuri-Aundi harria direla kontuan izanik, toki berezi bat behar zuela pentsatu zuten.

2015ean Amezketa 1.000 urte beteko ditu hiribildu dela, eta orduan berriz ateratzeko asmoa dute harria, txapelketaren bat egiteko.



Albitzuri, atzean pilotalekua duela. Aurreko plakan altxaerei buruzko datuak dauzka jarrira. N. URBIZU

Garesti bezain beharrezko

Igogailuaren obra «garestia eta zaila» izan da: ia 200.000 euro kostatu zaio Udalarri, eta 6 bat hilabetetan egin dute.

Garai bateko kartzelan dago, eta udaletxeko ganbarara nahiz bulegoetara joateko aukera ematen du. Kultur Etxera joateko hiru pisu igoko lituzke, eta handik korridorea igaro eta eraikin berrian egongo lirateke. Kultur Etxearen aurrean parketxo bat egingo lukete, etxebizitza berrien ondoan. ◀



Igogailua eta komunak. N. U.



Higiezin Agentzia

Pablo Gorosabel 40
1. solairua • 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel./faxa: 943 65 55 87
Sakelakoa: 669 368 994

Alegia. Azken bi modulok, 350 m2koak. Kokapen aldetik ezinhobea.

Amasa. 124m2ko bi etxebizitza.

Egoera oso onean. Altzari eta guzi.

Anoeta. Harrizko baserrian 90m2ko etxebizitza salgai.

Berritzeko.

Anoeta. Etxebizitza kanpoaldera, berria, garajearekin eta altzairuekin.

Belauntza. 350 m2ko pabilioia alokairuan, instalaturik.

Betelu. Hiru logelatako etxebizitza.

Egongela, sukaldia, bi komuna, terraza, altzairuekin, bikaina.

Berastegi. 2 solairuko pabilioia alokairuan, 700 m2 solairuko.

Berrobi. Laugarren solairuan etxebizitza salgai. Berritua.

Legorreta. Baserria salgai, lurrekin.

Informazio pertsonala.

Legorreta. Landa lurren 3 hektarea.

Lizartza. Etxe bifamiliar batentzako

lurra eta abeltzaintzarako ustiatetarekin.

Irura. San Miguel plaza. Atikoa.

76 m2 erabilgarri.

Irura. Etxezarreta; 3 logela, komuna, bainugela, altzariak, garajea eta trastelekua duen etxebizitza.

Tolosa. San Esteban auzunean, kanpora begirako 100 m2ko etxebizitza salgai. Berritu beharrekoa.

Tolosa. San Esteban auzunean, bi gelako etxebizitza, igogailuarekin eta erabat berritua.

Tolosa. Ugarran Goenan, baserria berritu beharrekoa. 3 solairuko.

Tolosa. San Frantzisko, 75 m2ko atikoa salgai. Eraberritzeko.

Tolosa. Berazubi. Etxebizitza

eraberritua, 4. solairua, igogailua jartzeko proiektua martxan.

Tolosa. Agintari kalea. Bi logelako etxebizitza. Egongela, sukaldia eta komunarekin.

Tolosa. Santa Klaran, 90 m2ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, lehenengo solairuan 105 m2ko etxebizitza.

Tolosa. Pedro de Tolosa. 122 m2ko etxebizitza, garajea eta trastelekua.

Tolosa. Zumalakarregi kalean, 140 m2ko etxebizitza. Egoera onean.

Tolosa. Maituna zaharra. Azken garajea itxiak, 30m2tik aurrera. Karga jasogailuekin sartzeko. Lanak laster hasiko dituzte.

ANOETA ▶ GIZARTEA

Udala «gustura» festetako egitarau bateratuarekin

ERREDAKZIOA

Anoetako Udalak helarazi duen ohar batean azaltzen duenez, bere poza agertzen du «aurreko urteetan herriko festetako egitarauan parte hartu ez duten herritar eta eragileek aurten parte hartzeko nahia azaldu dutelako». Jarrera hori Udalak «oso ondo» jaso du eta hurrengo egunetan behin betiko egitaraua itxi nahi du eta baita «alde guztien konpromisoa hartzea lortutako akordioak errespeta daitezten».

Udalak gaineratu duenez, bere helburua herritar guztien eta bisitarien parte-hartzea bultzatuko duen egitaraua adostea da eta jai giroak eta parte-hartzeak festetan beste edozerren gainetik egotea.

Bihar, bilera

Bestalde, festa batzordeak herriko festen inguruko bilerara deitu du, egitarauari azken ukituak emateko asmoz. Bihar izango da hori, udaletxean, 19:30ean.

ANOETA ▶

Txekor jaterako txartelak bihar arte salgai

Larunbatean antolatuta duden Ezker Abertzalearen Egunean egingo den txekor jatearentzako txartelak erosteko azken eguna bihar da. Anoetan Itzulin, Arkupen, Haizean eta Goikoetxean daude salgai txartelak, Tolosan Rakun, Ibarran Atarin, Alegian Ixkinan eta Villabonan Iratzarren. Langileentzat 22 eurotan eta ikasle eta langabe-tuentzat 15 eurotan daude salgai.

VILLABONA ▶

Alergien inguruko hitzaldia ikuspegi natural batetik

Jose Angel Cristobalena alergiei buruzko hitzaldia emango du. Hizlariak gaia ikuspegi natural batetik jorratuko du. Aipaturiko hitzaldia gaur burutuko dute, 19:30etik aurrera, Villabonako udaletxeko balio anitzeko gelan. Cristobalena hizlaria naturista, homeopata eta kinesiologoa da, besteak beste. Villabonako Ongizateak antolatuta du alergiei buruzko solasaldia.

IRURA ▶ OSASUNA



Marimi Ugaldek eta Iñaki Arratibelek erakutsi zuten osasun zentro berriaren plaka. I. GARCIA

Osasun zentro berria gaurtik aurrera egongo da martxan

Kulturunearen eraikinean kokatuta dago eta atzo egin zuten inaugurazio ofiziala Udalak eta Osakidetzak

IMANOL GARCIA

Osasun zentro berria inauguratu zuten atzo Iruran Udalak eta Osakidetzak, herritar ugari laguntzaz. Ekitaldiaren buru izan ziren Marimi Ugalde alkatea eta Iñaki Arratibel Osakidetzako Gipuzkoa Mendebaldeko arduraduna. Kulturunea dagoen eraikin berrian kokatzen den zentroaren zerbitzuak gaurtik aurrera jarriko dituzte martxan.

Herriko bi gaztetok dantzatu zuten aureskua eta ondoren Ugaldek eta Arratibelek osasun zentroaren plaka erakutsi zuten. Ondoren Iñaki Albitur parrokoak bedeinkapena egin eta zentro berria ikusi ondoren luntxa egin zuten bertara bildu ziren guztiak.

Bai Irurako Udalak eta baita Osakidetzako arduradunak ere zentro berriaren premia azpimarratu zuten: «Herrira azken urteotan hazi egin da eta Irurako zentro berria behar zuen». Aurrekoarekin alderatuta, «ekipamendu aldetik hobeto hornituta eta erosoagoa» dela azaldu dute.

Zentro berriak 230.000 euro inguruko kostua izan du eta Udalak ordaindu du gehiena. Osakidetzak 66.000 euro inguruko diru laguntza eman du. Guztira 158 m² ditu, baina oraingoz erabiliko direnak 125



Zentroaren itxaron gela. I. GARCIA



Erabilera anitzetarako gelan dauden zenbait aparailu. I. GARCIA

m² dira. «Erabili gabe geldituko den gelan, etorkizunean pediatriako zerbitzua eman nahi dugun», azaldu du Marimi Ugaldek. Zentroak itxaron gela, medikuaren gela, erizainaren

gela, erabilera anitzetarako gela eta komunak ditu. Erabilera anitzetarako gelan odol atezatzeak egiteko eta larrialdietaz arduratzeko prestatuta dago.

Jai Laia eta berriaren eskutik
Fermin Muguruzak prestatutako musika bilduma bikaina

Gaztetxoak eta heldiak

Elkarrekin dantzaz

'Musika Munduko Jolastokian'

ELSKAL HERRIA. I. Piztu. Flanney eta bere astakok
JAMAIKA. Goshko Maska Bookers with Top Mohal. Smoki island of song
EUSKAL HERRIA. Jaber Muguruzak. Je, je
LIVSFORD. The Beatles songs. All you need is love
KUBA. Luis Miro Nivola. Travesía mágica
HECOAFRIKA. Leslymthi Bwak. Marabou. Gift of the tortoise
NEW ORLEANS. Bushahezi. Zedee. Ocho choo baogaloo
MEXICO. Los Lobos with Lalo Guerrero. Papi's dream

Maiatzaren 5etik aurrera
larunbatera disko bat kioskoan

+ 5,30 €

AUKERA EZAZU, BIZI EUSKARAZ **berria**

BEDAIO ▶ GIZARTEA

Artubik eta Udalak hitzarmena sinatu dute Bedaio garatzeko

Arlo guztietako ekintzak eta eskakizunak hartzen ditu hitzarmenak; jarraipena egiteko komisioa osatuko dute



Bedaioko ikuspegi bat. I. TERRADILLOS

INIGO TERRADILLOS

Tolosako Udalaren eta Bedaio-ko Artubi Kultur Elkartearen artean hitzarmena sinatu dute «Bedaio garatzeko helburu batzuk lortze aldera». Atzoko Udalbatzaren osoko bilkuran aztertu beharreko gaien artean zegoen, hain zuzen, hitzarmena onartzearen puntua, eta alderdi guztiek, aho batez, eman zioten baiezkua.

Artubi Kultur Elkarteak kideek atzo batzar aretoan azaldu bezala, «hitzarmenak indar legalik izan ez arren eta bere ezarpena borondatearen baitan izanik ere, gaur egungo Bedaioarentzat arau subsidiarioen gauzatzea bezain garrantzitsua da, eta garapena hasteko eta gauzatzeko zutabe garran-

tzitsu bat izan daiteke, hitzarmenean arlo guztietako ekintzak eta eskakizunak azaltzen baitira». Hala, hitzarmeneko funsetariko bat bizi izatea dela adierazi zuten, «aportazioak noiznahi eta edozein eratakoak egitea baliagarria behar duen hitzarmena, horrela sortuko baita bertakoei eta bertara begirako garapena». Halaber, oso garrantzitsutzat ikusten du Artubi elkarteak jarraipena egiteko komisio eta lantaldea osatzea, «Bedaioaren ordezkari izateko Udalean eta bedaiotarren herri mailako kezka udal plenora eramateko erabili ahal izateko». Bestalde, arau subsidiarioak «etorkizuneko herria eraikitze araututako lan trenarrik garrantzitsuena» dela diote, «Bedaioarako garapen

endogeno eta iraunkor bat egiteko giltza». Hala, inbertsio fuerteak egin behar direla eta horretarako erakundeetara joatea eskatzen diote Udalari, «landa auzo bezala eskaintzen dituzten laguntzak eskuratze-ko lan eginez».

«Hirugarren mailakoa»

Artubi elkarteak, bestalde, 1544. urtetik Bedaio Tolosako zati dela juridikoki gogoratu zuten, eta egun 100 biztanle baino ez dituela. Legealdiz legealdi Tolosak «ardura txikia» izan duela adierazi zuten, eta horren ondorioz sortu zela elkartea, «hainbat ekimen eta barne mugimendu burutuz auzo ez galtzeko eta kanpoaldera ezagutzera emateko».

MENDIA ▶

Alpino Uzturrek irteera antolatu du

Alpino Uzturre elkarteak igande honetan Aralarren zehar (Intza-Uharte Arakil) mendi irteera antolatu dute. Irteera 08:00etan izango da Gorosabeletik. Ttuturre eta Txemine mendiak igoko dituzte. 7 orduko ibilaldia izango da. Izen ematea, elkartean (Gudari 5, behea) edo 943 652789 telefono zenbakian.

ZINEMA ▶

‘Tiempo de amor, juventud y libertad’ bihar

Biharko zine-forum saioan *Tiempo de amor, juventud y libertad* pelikula izango da ikusgai Leidor aretoan. Hou Hsiao Hsien da film honetako zuzendaria. Astero bezala, lehenengo saioa 19:15ean eskainiko dute, eta bigarrena, berriz, 21:45ean emango dute.

MUSIKA ▶

Musika Eskolako aurrematrikulak hilaren 31 arte

Tolosako udal Musika Eskolak jakinarazten du 07/08 ikasturteko aurrematrikula hilaren 31 arte egingo dela. Argibide gehiago jakin nahi izanez gero, 943 651593 telefono zenbakira deitu edo Gorosabel 34. dagoen bulegora joan beharko da, 10:00etatik 13:00etara.

HAUTESKUNDEAK ▶



EB-Aralar-en zerrenda osatzen duten hautagaiak. HITZA

EB-Aralar-en zerrenda aurkeztu dute

Herritarrentzat etxebizitza duina, industria Tolosara erakartzea eta garapen jasangarria EB-Berdeak eta Aralar koalizioaren ardatzen artean daudela adierazi dute Torquemada zerrendaburuak eta Irazabalbeitiak. Alkategaia eta bigarren hautagaiaz gain, Jakot Karrera, Agurtzane Uzin, M. Pilar Heras (independentea), Igo Eizagirre, Jose Ignacio Amatriain, Elixabete Etxeberria (independentea), Asier Arandia, M. Pia de Francisco, Pello Ezeiza, Noemi Ascaso, Mikel Ariztimuño, Concepcion Salinas, Gregorio Hernandez (independentea), Rogelia Villagarcia eta Jose Miguel Gonzalezek osatzen dute zerrenda osoa.

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

HILBERRIAK - URTEURRENAK - ESKERTZAK

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

HITZAK GIPUZKOAN 120.000 IRAKURLE

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen dira
tolosaldean@tolosaldekohitza.info
Tel.: 943 65 56 95

POLITIKA ▶

«Ilegalizazioari aurka egiteko» Mobilizazio Eguna deitu du ezker abertzaleak

Gaur arratsaldean egingo dira elkarretaratzeak bi eskualdetako herri gehienetan eta larunbatean EAE-ANV deituriko manifestaziora joango da ezker abertzalea



Amezketako ezker abertzalea plazan elkartuko da 20:00etan ilegalizazioaren aurka. HITZA

ASIER IMAZ

Ezker abertzaleak elkarretaratzeetara deitu du gaur arratsalderako. Mobilizazioak bi eskualdetako herri gehienetan burutuko dituzte, *Prozesu eta hauteskunde demokratikoen alde. Ilegalizaziorik Ez!* lemapean.

Abertzale Sozialisten Bata-sunak aurkezturiko zerrenda guztiak ilegalizazio bidean jarri izana salatu nahi dute ezker abertzaleetik, bide honetatik «akordioari eta lau herrialdeetarako autonomia proposamenari ezetza» eman diotela azalduko dute herri bakoitzeko elkarretaratzean. Euskal Herriak bizi duen egoeraren irakurketa zabalduko die herritarrei ezker abertzaleak. «PSOE, PNVren ezinbesteko laguntza, urtebete darama eztabaida eta nego-

ziazio politikoa atzeratu nahian, akordio politikoa isteko aitzaki iraunkorrek jarriz, Ezker Abertzaleak egindako proposamenak baztertuz eta finean; prozesuaren izaera politikoa desitxuratuz, Estatu antidemokratikoaren indarra gure aurka erabiltzen jarraitze-ko», diote, besteak beste.

Su etenaren ondoren «egindako proposamenei ezezkia esateaz gain, PNV eta PSOE alderdiak hauteskundeetatik at» utzi nahi dituztela salatu dute gaurkoan, «Euskal Herriaren hitza eta erabakia ukatu nahi dute, hauteskundeetan eta irekitako prozesuan».

Honen aurrean, hartutako konpromisoei jarrera «tinkoz»

iragarki laburrak ▶

LANA

Zerbitzaria. Tolosaldean taberna baterako zerbitzari bat behar da lau orduz lan egiteko. 943 69 43 13/635 74 52 91.

Sukaldaria. Villabonan sukaldaria behar da. Telefona: 943 69 19 33.

etsiko diotela jakinarazi dute, izan ere, «herri honen eskubide demokratikoen aldeko hau-tua indartu beharra dago». Bide horretan, euren proposamena «herri, auzo eta lantegietara zabaltzeko lanean eta borrokan» jarraituko dutela jakinarazi dute ezker abertzaleetik.

«EAE-ANVri babesa»

Eskualdeko ezker abertzaleak jakinarazi duenez larunbatean «bat» egingo dute Eusko Abertzale Ekintzak deituriko manifestazio nazionalarekin. «Bertan eskubide demokratikoen alde egiteaz gain, ilegalizazioa salatuko» dutela jakinarazi dute. Manifestazioa Bilbon egingo dute maiatzaren 12an, larunbatean eta Aita Donostiatik irtengo da 17:30ean. Deialdi hau bultzatzeko, ezker abertzaleak autobusak jarriko ditu eskualdeko herrietan.

Tolosan 15:30ean irtengo da triangulotik. Izena emateko ohiko lekuak jarri dituzte. Ibarrran Kultur Etxearen aurreal-detik irtengo da autobusa Bil-

KONZENTRAZIOAK ▶

Bi eskualdetako herri gehienetan egingo dituzte konzentrazioak gaur arratsaldean; *Prozesu eta hauteskunde demokratikoen alde. Ilegalizaziorik Ez!* lemapean.

Aduna. 19:45ean udalebxe aurrean.

Alegia. 20:00etan plazan.

Amezket. 20:00etan herriko plazan.

Anoeta. 19:30ean plazan.

Asteasu. 20:00etan herriko plazan.

Ibarra. 20:00etan Kultur Etxe aurrean.

Ikaztegieta. 20:30ean udalebxe aurrean.

Irura. 20:00etan udalebxe aurrean.

Leaburu. 20:00etan udalebxe aurrean.

Leizta. 20:00etan Kale Nagusian.

Lizartza. 20:00etan udalebxe aurrean.

Orendain. 21:00etan herriko plazan.

Tolosa. 20:00etan Trianguloan.

Villabona. 19:30ean Errebote plazan.

Zizurkil. 20:00etan Joxe Arregi plazan.

IBARRA ▶

Gaur herri antzerkian parte hartzeko bilera

Sanbartolometako herri antzerkia prestatzen ari dira dagoeneko, eta antzerki horretan ahalik eta jende gehienak parte hartzea nahi dute antolatzaileek. Horretarako, bilera gaur 20:00etan Benito Izagirre kultur etxea egingo dute. Bertan azalduko dute aurten zer istorio antzeztu behar duten, pertsonaien berri..., eta antzerkiaren inguruko beste gehetasun batzuk ere agertuko dituzte.

LEABURU ▶

Anjel Arrospide finalerdietatik urrats batetara

Anjel Arrospidek erakustaldia emanaz irabazi zion Joxemiel Peñagarikanori. Urduñan jokatu zen Urrezko Aizkorako C multzoko lehian, leaburuarrak proba guztiak irabazi zituen, amaieran 2 minutu eta 30 segundo kendu zizkiolarik beizamarrari. Finalerdietan sartzeko bi aukera izango ditu orain Arrospidek; lehena Larretxeari irabaziz lortuko luke, C multzoko lehen postuan. Horrela ez balitz, bigarren postua eskura duenez, beste bi multzoko bigarrenen aurka lehiatu beharko da. Hortik irabazle ateratzen denak, finalerdiko txartela lortuko du.

MENDIA ▶

Mendi martxak Berrobin eta Berastegin

Berrobi eta Berastegin mendi martxak antolatu dituzte. Berrobin, Kultur Astearen barnean antolatu dute mendi ibilaldia. Programan

08:00etan jartzen baldin badu ere, antolatzaileek 07:00etan irtengo direla jakinarazi dute. Berastegin bestaldu, Basurde elkartek antolatu du ibilaldi neurtua maiatzak 20ean. Herriko plaza-tatik 07:00etan irtengo dira. 6 orduetik 8 ordu bitarteko iraupena edukiko du eta Berastegiko aranean zehar, bertako mendi tontor altuenetik igaroko dituzte: Uli, Ipulñño eta San Lorentzo besteak beste. Ibilbidean zehar 5 kontrol eta 3 zerbitzu leku aurkituko dira. Amaieran berriz, diplomak banatuko dituzte.



NEREA GONZALEZ ▶ LORE SALTZAILEA

«Garai honetan frantziar huntz gorriaz gain, surfinia ere asko saltzen da»

Nerea Gonzalezek duela 9 urte Bitxi Lore denda ireki zuenetik eguna lorez inguratuta ematen du

NAIARA GARZIA

9 urte igaro dira jada Nerea Gonzalez Erbitik (Leitza, 1978) Bitxi Lore denda zabaldu zuenetik. 1998an bere familiak, erbititarrek, urte askoan aizkorak egiteko erabili zuten txokoa aukeratu zuen horretarako **Amaren Egunean gehienbat zer lore eskatu zizkizuten?** Orkidea asko saldu ziren eta gero lore sortak ere asko saltzen dira. Jendeak lore ezberdinez osatutakoak nahiago izaten ditu.

Zer lore saltzen dira gehien garai honetan?

Balkoietan jartzen direnak. Frantziar huntza, huntz bikoitza, alegria, begonia, petunia, surfinia, dalia. Gero pinuak ere jartzen dira, arrosa-landareak...

Kanpoan jartzen diren loreek gubdago irauten al dute?

Orain jartzen direnak garai honetakoak izan ohi dira, eta uda arte lorea eman eta eman egoten dira, baina Leitzaan gero neguan galdu egiten dira.

Denak galtzen dira?

Gehienak bai. Huntzak eta geranioak, adibidez, jendeak etxe barruan gordetzen ditu eta ongi zainduz gero, mantentzen dira, baina garai honetakoak normalean galdu egiten dira, batik bat, tageteak, petunia zintzilikariak, begoniak, alegriak... baina merkeagoak izan ohi dira.

Leitzaan loreekiko zaletasun handia al dago?

Bai, balkoiak asko apaintzen dituzte.

Zer da herrian gehien saltzen dena?



N. GARZIA

Garai honetan huntz frantzes gorriaz gain surfinia ere asko saltzen da: fuksia, gorria, moorea... Petunia zintzilikaria bat da. Urarekin kontu pixka bat gehixeago izan beharra duzu, eguzkitan oso ongi egoten da, baina ur gehiago behar

izaten du. Egunen batean ahaztuz gero nabaritu egiten zaie eta alde batera erortzen dira. Geranioak ere asko saltzen dira, frantziarra bereziki eta geranio bikoitza, baina gorriak izan daitezela gehienbat, arrosak baina nahiago dituzte.

Neguan jendeak zer lore jartzen du?

Neguan pentsamendua asko gustatzen zaio jendeari, oso lore ederra baita. Kolore ezberdinetakoak daude eta zortzi hilabete loretan egoten da: urritik hasi eta maiatzera arte. Eguzki pixka batek ematen badiu neguan askoz hobeto, baina udaberriko ekiarekin ondo atera eta galdu egiten dira. **Eta landare usaintsuak jendeak erosten al ditu?**

Bai, erromeroa, izpilikua, ezkaia eta albahaka, bereziki. Albahakaren kasuan, landare honek hotza ez du jasaten, baina erromeroak Leitzaan oso ongi irauten du.

Orkideak azken urteetan arrakasta handia izan du.

Bai. Orkideak lorearekin 4 edo 5 hilabete oso ongi irauten ditu. Gero lorea galdu egiten da baina landarea ez, eta orduan behetik moztu egin behar da eta hurrengo urtean lorea berriro ateratzen zaio. Orkidearekin pazientzia izan behar duzu, bi zoztor ikusi eta galduta dagoela dirudi, baina ez da horrela. Berdin-berdin zaindu behar da. Argi asko izanez gero eta etxe barruko tenperaturekin lorea ateratzen du. Koloretako azak ere oso modan daude.

Ezkontzak hasi dira jada. Emaztegalak etortzen diren-an, idela zehatz bat izaten al dute?

Batzuk oso argi izaten dute, beste batzuk ez dute jakiten eta orduan katalogoan begiratu egiten dute. Orain adibidez koloretako kala txikia asko eramatean da ezkontzetan.

Emaztegalen sortetan modak asko aldatzen al dira?

Bai, orain dela urte batzuk larrosekin lore-sorta asko egiten nituen. Orain jendeak lore-sorta xumeak nahiago ditu.

Zuri asko gustatzen zaizun lore bat?

Larrosa asko gustatzen zait, oso gauza berezia ikusten baitiot: arantzak dauzka eta aldi berean lore-egia oso polita du, eta metafora bat da: nahiz eta zerbait perfektua izan, nonbait zulorik edo alde ilunik ere izanen du. Larrosak hori irudikatzen du nire ustez.

LEITZA ▶

Juana Irurtia Lizarragak irabazi du II. Ipuin Lehiaketa

ERREDAKZIOA

Juana Irurtia Lizarragak irabazi du II. Ipuin Lehiaketa, *Galtzarabordako Lutxi* ipuinarekin. Joan den ostiralean ospatu zuten herriko liburutegian II. Ipuin Lehiaketako sari banaketa eta bertan lehiaketara aurkeztutako ipui guztiak irakurri zituzten: Irurtiaren «Galtzarabordako Lutxi», Mikel Illarregiren «Arei», Judith Mariezkurrenaren «Zerbaiten parte», Fernando Oiaratzunaren «Gaur ez noa lanera» eta azkenik, anonimo bat: «Zer dago ezkurtuan?».

20 bat lagun hurbildu ziren sari banaketara eta laister ipui guztiak liburuxka moduan irakurgai egonen dira liburutegian. Sari banaketan 5 herritarrek ipui guztiak irakurri zituzten.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.** Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003
▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun etxea: 672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329
▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800
▶ **Orendain.** Medikua: 655595
▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**
▶ Anbulatorioa, larriald: 461111
▶ San Esteban: 006800
▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637
▶ Asunzio klinika 675799 - 67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536
▶ Gurutze Gorria: 674888
▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930
Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02
▶ Donostiako autobusa: 361740
▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitza autobus: 948 221015
▶ Taxia: 670420
▶ Taxia (Leitza): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820
▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858
▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325
▶ Tolosa gasa: 675320

LANDAREAK ▶ URTAROAK

UDABERRIKOAK

Kanpoko loreak. Frantziar huntza «gitanilla», huntz bikoitza, geranioa, alegria, alegria bikoitza, ginear alegria, begonia, begonia elatior, petunia, surfinia, tagetea, ageratum, dalia, salbia, krabelina, erromeroa, izpilikua, ezkaia eta albahaka.

▶ Frantziar huntza eta surfinia dira jendeak gustuko dituenak,

eta frantziar huntzen kasuan, Leitzaan gorriak nahiago izaten dituzte.

NEGUOKOAK

Landareak. Pentsamentuak, udaberri-loreak, ziklamenak, azaleak...

MODAN DAUDENAK

Kanpokoak. Surfiniak gero eta gehiago saltzen dira eta



Bitxi Lore denda. N. G.

koloretako azak ere modan daude.

Barrukoak. Orkidea azken urte hauetan asko saltzen den landarea da. Etxe barruko tenperatura komeni zaio, eta argi asko behar izaten du. 5 hilabete pasa eta gero loreak galtzen dituen arren, landarea berdin berdin zaindu behar da, eta urte batetara loreak emango ditu berriro.

AGENDA ▶
DEIALDIAK

Berrobi. Kultur Astea: Ikatzeta tabernako Kontxi Doronсорorekin sukaldaritzako erakusketa Bide Ona elkartean 18:00etan. Haurtzaindegi zerbitzua eskainiko da Etxolan.
Anoeta. Fesketan Koadrilen Eguna antolatze bilerara batera deitu die festa batzordeak herriko koadrilei 19:30ean, udaletxean.
Tolosa. Albada Erdi Aroko musika eta dantza taldearen kalejira 19:30ean; eta 20:00etan udal batzar aretoan Donejakue Bideko musika eta Tolosa eta bidearen arteko harremanaz ariko da Pablo Garcoa eta Euskadiko Bideko kultur ondareaz Jaurlaritzako Arantxa Arzamendi.
Tolosa. Cd eta binilo azoka berezia Bonberenean, 18:00etatik 21:00etara.

ZINEMA

Alegia. *Crash* filma izango da, Gaztetxean, 21:30ean.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Iruztzun. Gastarena, M. Amaia kalea, 4. 112.
Tolosa. Olarrea, J. Korreo kalea, 2. 943 670128.

IRRATIA

Txolarre irrateria (107.5, 101.2 FM)
 11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren erreperasoak, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
 18:00-20:00. *Tolosaldeko ahotsa* (errepikapena).
 20:00-21:00. *Irauli uhinak*.
 21:00-23:00. *Bide okerretik*.

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Bertsoaren garrantziaz

ZIZURKIL ▶ 'Hitzak egin gaitu ezer' bertsolaritzari buruzko erakusketa ikusgai dago Atxulondo kultur etxean Maiatza saltsan kultur egitarauaren baitan



Zizurkilgo ikasleak Amaia Agirre bertsolariarekin bisita gidatuak egiten ari dira. HITZA



Erakusketaren muntaietako bat. I. GARCIA

IMANOL GARCIA

Maiatza Saltsan kultur egitarauaren baitan *Hitzak egin gaitu ezer* izeneko erakusketa jarri dute ikusgai Atxulondo kultur etxean. Bertsolaritzari buruzko erakusketa da, Koldo Izagirre idazleak sortutakoa. Honen teoriaren arabera, Euskal Herriari buruz ez genuke jakingo egun dakiguna bertsorik gabe.

Hau da, bertsoa izan da gure historiaren transmisioaren ardatz nagusia. Lau panel nagusi ditu erakusketak. Bat transmisioari buruzkoa. Bestea bertsolaritza nola egokitzen den garaian gaikoari. Hirugarrena gaiaren inguruan. Eta azkena bertsolaritza eta publizitatearen arteko harreman estua. Horrez gain, joku interaktiboak egiteko aukera dute bisitariek. Bi maniki eta ispilu bat ere aurki daitezke erakusketa-erdiaren. Azalean eta barruan dagoen arteko ezberdintasunak islatu nahi ditu. Pantaila batzuk ere badaude, bertsolaritza, artea eta arkitekturaren arteko harremana agertuz. Azkenik, mikrofono zahar eta berri bat eta aulki zahar eta berri bat daude eszenatokian, bertsoa kanta-tzerakoan moduak ez direla hainbeste aldatu adierazteko. Erakusketa ikusgai dago astegunetan 10:00etatik 13:00etara eta 16:00etatik 20:00etara eta asteburuan 12:00etatik 13:30era.

AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
 Irati Irazusta. Gaur 6 urte. Zorionak aitaboreen eta amaboreen partetik! Panpoxa!



URTE ASKOAN
 Mikel Otermin. Gaur 2 urte. Zorionak! Bi muxu goxo ebekoien partetik.

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- ▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea
- ▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
 agurren tartea

Urtebetetzak, urrezko etzeiak, ezkontzak, jaioberriak...

hitza Harpidedunen txokoa

Lizardik antolaturiko emanaldiak direla-eta **HITZAko harpidedun guztien artean** datorren **igandean** maiatzak 13, eguerdiko 14:30ean Tolosako zerkausian egingo den **bazkari herrikoierako** 2 harpidedunentzako **bina sarrera zozketatuko ditugu!**

Zorte on eta adi egon!

zozketan parte hartzeko beharrezkoa da harpidedun ordaintzailea izatea